

**Euskadiko Prebentzio  
Komunitariorako Tokiko  
Talde Teknikoen eta  
bestelako Baliabideen  
beharrei buruzko 2019  
urteko azterketa**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

**Siis** Centro de  
Documentación  
y Estudios  
Dokumentazio  
eta Ikerketa  
Zentroa  
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa

## Sarrera

---

Txosten hau Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Talde Teknikoen eta Tokiko bestelako Baliabideen (TTBT) beharrei buruzko azterketaren esparrukoa da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak egindakoa.

Izaera kuantitatiboa eta deskribatzailea duen azterlan bat da, Euskadiko Talde Tekniko eta Toki Baliabideetako arduradun teknikoei egindako iritzi-inkesta batean oinarritzen dena<sup>1</sup>.

Galdetegiak bai erantzunen aukera bitartez era itxian formulatutako aldagai kuantitatiboak, bai aldagai kualitatibo irekiak biltzen ditu, Euskadiko Talde Tekniko eta Toki Baliabideetako teknikoen iritziak biltzeko.

Bildutako informazioa sei sail handitan artikulatzen da:

- TTBTetako oinarrizko datuak.
- TTBTek egindako programak, jarduerak eta interbentzioak.
- Lankidetzeta eta koordinazioa beste instituzio eta erakunde batzuekin.
- Balorazioa.
- TTBTen beharrak.
- Ebaluazio-jardueretan parte-hartzeko asmoa.

Txostena hiru sail horien arabera egituratua dago. Emaitzak Euskadiko biztanleria osoaren arabera aurkezten dira, lurralde historikoaren arabera eta TTBTa dagokion toki-erakundearen biztanleriaren arabera.

Azkenik, aurretik aipatutako atalen analisiaren ondorio batzuk aurkezten dira.

Txostenaren bukaeran, alde batetik, TTBT bakoitzari dagokion toki-erakundearen partaide diren udalerrien zerrenda kontsulta daiteke eta, bestalde, informazio-bilketarako erabili izandako euskarazko galdetegia.

---

<sup>1</sup> Txosten honetan TTBTei buruz erabili izandako definizioak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Taldeak sortu eta osatzeko diru-laguntzak jaso izandako Tokiko Talde Teknikoak kontuan hartu ditu, baina baita diru-laguntza horiek jaso ez dituzten adikzioen prebentzio komunitariorako bestelako tokiko baliabide horiek ere. TTBTen zerrenda osoa txostenaren amaieran kontsulta daiteke, l. gehigarrian.

# Edukien aurkibidea

---

<b>Sarrera .....</b>	<b>01</b>	<b>Ondorioak .....</b>	<b>25</b>
<b>Azterketaren aurrekariak, helburuak eta metodologia .....</b>	<b>03</b>	<b>Gehigarriak .....</b>	<b>29</b>
Azterketaren aurrekariak eta helburuak .....	04	I. Gehigarria: TTBT bakoitzaren partaide diren udalerrien zerrenda .....	30
Metodologia .....	05	II. Gehigarria: Gaztelaniazko galdetegia .....	32
Galdetegia.....	05		
Landa-lana .....	05		
Partaidetza-tasa.....	06		
<b>Emaitzak .....</b>	<b>07</b>		
TTBTetako oinarrizko datuak eta osaera.....	08		
Programak, jarduerak eta interbentzioak .....	10		
Lankidetzaren eta koordinazioaren beste instituzio eta erakunde batzuekin. ....	16		
Balorazioa.....	17		
Beharrak .....	21		
Ebaluazio-jardueretan parte-hartzeko gogoia. ....	24		

## **1. Azterketaren aurrekariak, helburuak eta metodologia**

---

## 1.1. Azterketaren aurrekariak eta helburuak

---

Adikzioei buruzko Euskadiko 2017-2021 VII. Planak Osasun Publikoko ikuspegia oinarritzat hartzen du adikzioen eta drogamenpeketasunen artarako. Halaber, Adikzioen eta Droga Menpeketasunen gaineko Arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak adikzioen arloari diziplina anitzeko eta integrala den ikuspegi batetik heltzen dio, aztura osasungarriak lortzera eta osasun-kulturara bideratzen dena, zeinak osasun-sustapenaren eta adikzioen prebentzioaren aldeko ekimenak lehenesten ditu.

Prebentzioaren arloan, lehenetsutako da eremu komunitarioa, pertsonen emandako zerbitzuen gertutasunagatik eta komunitateetan partaide izateagatik (familia-eremua, eskola/hezkuntza, aisialdia eta kirola, lan-arloa, etab.), zeinak lagun horien guztien inplikazioa eta parte-hartzea bilatzen baitu proposatutako interbentzioen bitartez. Lan horren baitan, toki-erakundeek rola nabarmena da, eta zehazki, Euskadiko menpeketasun eta droga-zaletasunen prebentziorako talde teknikoena, irabazi-asmo gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin batera egindako lana.

Euskadiko menpeketasun eta droga-zaletasunen prebentziorako talde teknikoak Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide-sarearen baitan daude. TTBT horiek prebentzio komunitarioko programak garatzen dituzte, eta arriskuak eta kalteak murrizteko proiektuak egin; eta toki-erakunde desberdinetan (udaletxeak, kuadrillak eta mankomunitateak adikzioen arloko jokabide osasungarriak sustatu).

2016 urtean 34 TTBTk osatzen zuten baliabide-sarea (Adikzioen VII. Plana), 2019 urtean 50 izatera iritsi da kopuru hori. Talde horiek 143 udalerritan daude, eta nabarmen daitekeen bezala, Euskadiko biztanleriaren %80,2 TTBT batek artatutako toki-erakunde batean bizi da.

Testuinguru honetan, TTBT horien egungo egoera eta burutzen duten lana ezagutzeko ezinbestekoa da, baita haiek dituzten beharrak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan azterlan aitzindari bat dago – “Drogamenpeketasunen prebentzioari buruzko udaletako taldeen azterlan ebaluatzailea”–, Drogamenpeketasunen Deustu Institutuak metodologia kualitatibo batean oinarritutakoa; eta oinarritzko xedea talde horien dinamismoa ezagutzea zuen. Zehazki, azterlan horretan talde horien funtzioak eta baliabideak, ingurune bereko erlazioak eta koordinazioa deskribatzen ziren (arduradun politikoak, beste zerbitzu batzuk, erabiltzaileak, etab.); baita haiei buruzko balorazioa ere.

Azterlan honetako oinarritzko xedea Euskadiko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Tokiko Talde Teknikoen eta bestelako Baliabideen egungo egoera ezagutzea da.

Zehatz-mehatz, azterlanaren berariazko helburua ondoko alderdiei buruzko informazioa biltzea da:

- TTBTen dedikazioa eta egungo osaera.
- TTBTek egindako interbentzioak eta lana.
- Adikzioei buruzko arloan Euskadin egindakoa balorazioa.
- TTBTen behar teknikoak, zeregin profesionalaren esparruan.

## 1.2. Metodologia

---

Izaera kuantitatiboa eta deskribatzailea duen azterlan bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko Talde Tekniko eta Toki Baliabideetako arduradun teknikoiei egindako iritzi-inkesta batean oinarritzen dena.

### 1.2.1. Galdetegia

Galdetegia Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin lankidetzan diseinatu da.

Galdetegia eta datu-bilketa Internet erabiliz egin da, *SurveyMonkey* plataforma birtualaren bitartez. TTBtetako arduradun teknikoekin harremanetan jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eskainitako datuak erabili dira (posta elektronikoko helbideak eta telefono-zenbakiak).

Galdetegia 22 galderekin osatzen dute, eta aldagai kuantitatiboak –erantzunen aukera itxien bitartez formulatuak– nahiz kualitatibo irekiak biltzen ditu –teknikariek haien iritziak idatziz, karaktereetako mugarik gabe–. Halaber, zenbait galderekin derrigorrezko zuten erantzuna betetzea galdetegiari erantzuten jarraitu ahal izateko.

Bildutako informazioa sei sail handitan artikulatzen da:

- TTBtetako oinarritzko datuak.
- TTBtekin egindako programak, jarduerak eta interbentzioak.
- Lankidetzeta eta koordinazioa beste instituzio eta erakunde batzuekin.
- Balorazioa.
- TTBten beharrak.
- Ebaluazio-jardueretan parte-hartzeko asmoa.

### 1.2.2. Landa-lana

Azterlanean azaltzen diren datuak lortzeko prozesua ondokoa izan da.

Lehenik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak 2019ko urtarrilaren 10ean komunikatu bat igorri zuten TTBtetako teknikari arduradunei, eta azterlanaren xedea azaldu eta haien partaidetza eskatu zitzaizkien.

2019ko urtarrilaren 16an, SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa –informazio-bilketaren prozesua kudeatzeko arduratutako erakundea– posta elektronikoz harremanetan jarri zen arduradun horiekin, eta galdetegiaren lotura igorri Internet bitartez betetzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak emandako direktorioa erabili zen. Mezu elektronikoko horretan, gainera, edonolako zalantzari aurre egiteko harremanetan jartzeko modua eskaintzen zitzaizkien. Bidalketa horri erantzuteko hamabost eguneko epea eskaini zitzaizkien, zehazki, 2019ko urtarrilaren 31 bitartekoa; erantzunik igorri gabeko teknikariek astia izateko.

Ezarritako epea bete ondoren, bigarren mezu bat bidali zitzaizkien, eta betekizunerako epea 2019 urteko otsailaren 8ra arte luzatu.

Onartutako azken galdetegia 2019ko otsailaren 12an jaso zen. Guztira, 50 TTBtetatik 47 ordezkariak erantzun zioten galdetegiari, eta %94,0ko tasa lortu.

## 1.2. Metodologia

### 1.2.3. Partaidetza-tasa

#### Unibertsoa:

2019 urtean, Euskadiko 50 toki-erakunde (udalak, kuadrillak edo mankomunitateak) Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Tokiko Talde edo bestelako baliabide Teknikoren (TTBT) bat izan dute: 25 Bizkaian, 19 Gipuzkoan eta 6 Araban.

TTBTe 39 udaletan, 8 mankomunitatetan eta 3 kuadrilletan lan egiten dute; guztira, Euskadiko 143 udalerritan lan egiten dute.

Euskadiko biztanleriaren %84,1, hau da, 1.850.000 bat biztanle gertu, TTBT bat duen udalerrri batean bizi da: %100 Araban (328.868 biztanle), %90 Bizkaian (1.034.249 biztanle) eta %67,4 Gipuzkoan (485.914 biztanle).

#### Lagina:

Galdetegiaren erantzute-tasa %94,0koa izan da: Arabako TTBTetatik %100ak, Gipuzkoakoetatik %94,7k eta Bizkaikoetatik %88,0k parte-hartu du azterlanean.

Beraz, galdetegiaren lagina 47 taldek osatzen dute: 6 Arabari dagozkio, 22 Bizkaia eta 18 Gipuzkoari. Hala ere, aldagai kualitatiboen analisia betetzeko, 47ra handiagotu da lagina, beste galdetegi bat gehitu delako, Arabako kuadrilletako TTBTako koordinatzaileari dagokiona.


Euskadiko biztanleriaren arabera laginaren adierazgarritasunari dagokionean, azterlanean partaide izandako biztanleriaren %80,2 TTBT bat duen udalerritan bizi da: %100 Araban, %84,3 Bizkaian eta %64,6 Gipuzkoan.

1. Taula. Galdetegiaren unibertsoa eta partaidetza-tasa Lurralde Historikoen arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	
<b>Unibertsoa</b>	TTBTak dituzten toki-erakunde kopurua	6	25	19	50
	TTBTak dituzten udalerrien kopurua	51	71	21	143
	TTBTak dituzten udalerrietako biztanleria	328.868	1.034.249	485.914	1.849.031
	TTBTak dituzten udalerrien %, Euskadiko biztanleria osoaren arabera	%100,0	%90,0	%67,4	%84,1
<b>Partaidetza</b>	TTBTak dituzten erantzundako toki-erakunde kopurua	6	22	18	47
	Erantzute-tasa (%)	%100,0	%88,0	%94,7	%94,0
	TTBTak dituzten erantzundako udalerrietako biztanleria	328.868	968.948	465.692	1.763.508
	TTBTak dituzten erantzundako udalerrien %, Euskadiko guztizkoaren arabera	%100,0	%84,3	%64,6	%80,2

Iturria: Biztanleriari buruzko datuak INEK 2019ko urtarrilaren 1ean berrikusitako Udal Erroldatik lortu dira.

1. Grafikoa. Galdetegiaren erantzute-tasa eta TTBTak dituzten erantzundako udalerrietako biztanleriaren %, Euskadiko biztanleria osoaren eta Lurralde Historikoen arabera (%)



## 2. Emaizak

---



## 2.1. Emaitzak

### 2.1.1. Tokiko Talde Teknikoen eta bestelako Baliabideen oinarrizko datuak eta osaera

TTBTak dituzten toki-erakundeetako biztanleria:

Euskadiko TTBTetik %39,1 (n=18) toki-erakunderen batekoa da (udala, kuadrilla edo mankomunitatea), 8.001 eta 20.000 bitarteko biztanleria duena; eta %26,1 (n=12) 20.001 eta 45.000 biztanle bitartekoa. TTBTatik %19,6 (n=9) 45.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakundeak dira, eta %15,2 (n=7) tamaina murriztagoko udalerrak dira (8.000 biztanle baino gutxiago).


Lurralde Historikoen arabera, Arabako –%66,7– eta Gipuzkoako –%72,2– TTBT gehienak 20.000 biztanle gainditzen ez dituzten toki-erakundeetakoak dira. Bizkaiko kasua, hala ere, desberdina da, eta lurralde horretako TTBT gehienak –%63,7– 20.000 biztanle baino gehiago dituzten toki-erakunde batekoak dira.

TTBTak osatzen dituzten profesionalen zenbatekoa:

TTBTak osatzen dituzten pertsona-kopurua bat eta hiru lagun artekoa da kasurik gehienean (%81,8). Hamar TTBTtik sei (%65,2) goi- edo erdi-mailako titulazioa duen pertsona batek osatzen du, eta TTBTetik erdiek ez dute administrari-laguntzailerik (%54,3).

Azken batean, kide gutxiko taldeak izaten dira, eta sarri TTBTaren oinarrizko zerbitzuetako teknikariek Toki Erakunde beste zerbitzuetako teknikariek lankidetzan jarduten dute. Horren ondorioz, galdetegiari erantzutean, TTBTetako arduradun tekniko batzuk taldearen partaide gisara kontuan hartu dira.

2. Grafikoa. Tokiko Talde Teknikoko partaideen toki-erakunde biztanleria-tartea, Lurralde Historikoen arabera (%)



2. Taula. Tokiko Talde Teknikoa osatzen duten profesionalen kopurua (goi- edo erdi-mailako titulazioa duten teknikariak eta administrari-laguntzaileak)

		N	$\bar{x}$	$\sigma$	Gut.-Gehi.
Guztira	Goi- edo erdi-mailako titulazioko teknikariak	46	1,9	1,7	(1-10)
	Administrari-laguntzaileak	46	0,5	0,5	(0-2)
	TTBTa osatzen duten pertsona-kopurua	46	2,4	2,0	(1-10)
< 20.000	Goi- edo erdi-mailako titulazioko teknikariak	25	1,8	2,6	(1-1)
	Administrari-laguntzaileak	25	0,7	0,5	(1-1)
	TTBTa osatzen duten pertsona-kopurua	25	2,5	2,4	(2-2)
20.001-45.000	Goi- edo erdi-mailako titulazioko teknikariak	12	1,8	2,6	(1-10)
	Administrari-laguntzaileak	12	0,7	0,5	(0-1)
	TTBTa osatzen duten pertsona-kopurua	12	2,5	2,4	(1-10)
> 45.000	Goi- edo erdi-mailako titulazioko teknikariak	9	2,4	1,0	(1-4)
	Administrari-laguntzaileak	9	1,1	0,3	(1-2)
	TTBTa osatzen duten pertsona-kopurua	9	3,6	1,2	(2-6)

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.1. TTBTetako oinarrizko datuak eta osaera

#### Indarrean dagoen drogamenpeketasunen eta/edo adikzioen Tokiko Plana

Euskadiko TTBT gehienek (%91,3) drogamenpeketasunen eta/edo adikzioen Tokiko Plana indarrean dute: Gipuzkoako TTBTetatik %88,89k, Bizkaikoetatik %90,9k eta Arabakoetatik %100k.

Biztanleria-tamainaren arabera, Tokiko Planak dituzte 8.000 biztanle azpiko herrietan (%100), 8.001-20.000koen artean (%94,4) eta 45.000 baino gehiagokoaren artean (%100). Aitzitik, 20.001-45.000 biztanle bitarteko toki-erakundeetako TTBTetatik %25ak ez du Tokiko Planik edo indarraldia amaitu edo ebaluazio-fasean dago.


Tokiko Planen indarraldia desberdina izaten da toki-erakunde desberdinetan, baina gehienetan 3-5 urte bitarteko indarraldia izaten du (%83,3).

#### Substantziarik gabeko adikzioak Tokiko Planetan


Drogamenpeketasunen eta/edo adikzioen Tokiko Planak dituzten Euskadiko TTBT gehienek substantzia gabeko adikzioak kontuan hartzen dituzte (%81,0): Gipuzkoako TTBTen %68,8k, Bizkaikoetatik %85,0k eta Arabakoetatik %100k.

Biztanleria-tartean arabera, 45.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakundeetako TTBT guztiek, 8.000 biztanle baino gutxiagoko (%85,7) eta 20.001 eta 45.000 biztanle bitarteko (%88,9) udalerrietako taldeetatik %85ak baino gehiagok substantzia gabeko adikzioak aintzat hartzen ditu Tokiko Planetan. Hala ere, 8.001-20.000 biztanle arteko TTBTetatik %35,3k ez ditu aintzat hartzen era horretako adikzioak.

### 3. Grafikoa. Drogamenpeketasunei eta/edo adikzioei buruzko Tokiko Plana indarrean duten toki-erakundeetako Tokiko Talde eta bestelako Baliabideak (%)



### 4. Grafikoa. Substantzia gabeko adikzioak aztertutako drogamenpeketasunei eta/edo adikzioei buruzko Tokiko Plana indarrean duten toki-erakundeetako Tokiko Talde eta bestelako Baliabideak (Tokiko Plana duten TTBTen %)



## 2.1. Emaitzak

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak

TTBTek programak, jarduerak eta interbentzioak burutu izan dituzten arloak


2018 urtean zehar eta gaur egunera arte, TTBTetik %80k baino gehiagok prebentzio unibertsaleko programak, jarduerak edo interbentzioak aurrera eraman izan dituzte eskola-eremuan (%93,5), familia-arloan (%82,6) eta arlo komunitarioan (%80,4).

Hamar TTBTetik zazpi inguruk era selektiboko prebentziorako programak, jarduerak edo interbentzioak egin dituzte jai- eta aisialdi-eremuan (%76,1), eskola-eremuan (%73,9) eta arlo komunitarioan (%67,4). TTBTetik erdiak baino gehiagotan, nerabe eta gazte kalteberek interbentzioak (%56,5) eta familia-arloko prebentzio selektiboko saioak (%52,2) egin dituzte.

TTBTetan gutxien garatu izandako arloak profesionalen prestakuntzari (%39,1), adikzioei buruzko ezagutzaren dibulgazioari (%28,3) eta adikzioen ikerkuntza epidemiologikoari eta oinarrikoari buruzkoak izan dira (%21,7), baita lan-eremuko prebentzio unibertsaleko interbentzioei buruzkoak ere (8,7%).

Oro har, eremu bakoitzean programak, jarduerak edo interbentzioak egin dituzten TTBTen ehunekoa hazi egiten da dagokien toki-erakundearen biztanleriaren tamaina handitzen den heinean. Arabako taldeen kasuan ere handiagoa da. Nolanahi ere, laginaren tamainak aztertutako talde guztien kasuan, alde horietan eragina duela kontuan izan behar da.

5. Grafikoa. 2018 urtetik gaur egunera arte TTBTek egindako programen, jardueren edo interbentzioen arloak (%)



3. Taula. 2018 urtetik gaur egunera arte TTBTek egindako programen, jardueren edo interbentzioen arloak, lurralde historikoaren eta toki-erakundearen biztanleriaren arabera (%)

	< 20.000	20.000-45.000	> 45.000	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	Eskola-arloko prebentzio unibertsala	88,0	100,0			
Familia-arloko prebentzio unibertsala	72,0	100,0	88,9	100,0	81,8	77,8
Arlo komunitarioko prebentzio unibertsala	64,0	100,0	100,0	100,0	90,9	61,1
Jai- eta aisialdi-arloko prebentzio selektiboa	72,0	83,3	77,8	100,0	68,2	77,8
Eskola-arloko prebentzio selektiboa	68,0	75,0	88,9	83,3	81,8	61,1
Arlo komunitarioko prebentzio selektiboa	68,0	58,3	77,8	100,0	59,1	66,7
Kalteberatasun handiko nerabeei eta gazteei bideratutako prebentzioa	68,0	41,7	44,4	100,0	36,4	66,7
Familia-arloko prebentzio selektiboa	44,0	58,3	66,7	50,0	59,1	44,4
Profesionalen prestakuntza	28,0	41,7	66,7	83,3	36,4	27,8
Ezagutzaren dibulgazioa	24,0	25,0	44,4	66,7	18,2	27,8
Ikerkuntza epidemiologikoa eta oinarrikoa	12,0	41,7	22,2	66,7	18,2	11,1
Lan-arloko prebentzio unibertsala	8,0	16,7	-	33,3	9,1	-

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak


#### Osasuna sustatzeko arloa

Osasuna sustatzeko arloan, bizitzarako trebezien garapena (%87,0), sektore arteko sare-lana (%76,1) eta pertsonen eta komunitateen ahalduntzea (%60,9) izan dira TTBTek Euskal Autonomia Erkidegoan gehien garatu izandako interbentzio motak. Horren aldean, ingurune sozialen, fisikoen eta ekonomikoen hobekuntzaren alde egin dute %15,2k soilik.

Emaitzek erakusten dutenez, lau eremu horietan lan egin duten taldeen ehunekoa handiagoa da biztanleria handiagoa duten toki-erakundeetako TTBTen artean.

Ehunekoak handiagoak dira Arabako lurralde historikoko TTBTen kasuan, izan ere, TTBT guztiek lan egin baitute bizitzarako trebetasunen, sektore arteko sare-lanaren eta pertsonen eta komunitateen ahalduntzearen alde.

6. Grafikoa. Osasunaren sustapenaren arloan, 2018 urtetik gaur egunera arte TTBTek landutako interbentzio motak (%)



4. Taula. Osasunaren sustapenaren arloan, 2018 urtetik gaur egunera arte TTBTek landutako interbentzio motak, lurralde historikoaren eta toki-erakundearen biztanleria-tamainaren arabera (%)

	20.000 baino gutxiago	20.001 eta 45.000 artean	45.000 baino gehiago	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bizitzarako trebeziak	80,0	91,7	100,0	100,0	81,8	88,9
Sektore arteko sare-lana	68,0	75,0	100,0	100,0	72,7	72,2
Pertsonen eta komunitateen ahalduntzea	64,0	50,0	66,7	100,0	54,5	55,6
Ingurune sozialen, fisikoen eta ekonomikoen hobekuntza	12,0	16,7	22,2	33,3	18,2	5,6

## 2.1. Emaitzak

---

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak

#### Emaitzak hobeketa eta funtzionamendu egokirako arrazoiak

Oro har, eskola-eremuko adikzioen prebentzio unibertsaleko programak, jarduerak eta interbentzio unibertsalak izan dira emaitza egokienak lortu izandakoak, bai ikasleekin egindako zuzeneko interbentzioetan, bai gurasoen prestakuntzarako ekimenetan.

Urteetan zehar egonkor mantendu diren programak dira, eta, beraz, denborarekin sendotzen joan dira. Programa horiek eskari handia dute, parte-hartze handia eta parte-hartzaileen beharrei erantzuten diete. Egindako ebaluazioetan gogobetetasun-maila handia lortu dute, bai ikasle, bai irakasle nahiz familien aldetik; nahiz eta zaila den epe laburrean eta luzean haien eragina eta eraginkortasuna ebaluatzea.

*“Denboraren poderioz oso sendoturik dauden programak dira, eta programetan parte-hartze izandako eragileen lankidetzari esker lortu da”. “ikastetxeen lankidetzaharremanaren ondorioz, ikasgelako kalitatezko interbentzioak eta zuzendaritza-taldeei, tutoreei eta irakasleei bideratutako aholkularitza eskain daitezke”. “...euren premietara egokitzeko, elkarlanerako hartzaileak guztiaren parte sentitzen dira. Honek guztiak prebentziorako KULTURA eraikitzen du”.*

Hein apalagoan izan arren, jaien giroko eta aisialdiko prebentzio selektiboa ere aipatzen dira. Zuzeneko interbentzioak dira, ingurune informaletara egokituak, eta horrek gazteek erabilitako guneetara hurbiltzea ahalbidetzen du. Ekintza puntualak izan arren, orokorrean, parte-hartzaileek balorazio baikorra ematen diete.

*“...nahiz eta oso ekintza puntualak diren. Esku hartzeak gazteak mugitzen diren eremu ez formaletan garatzea izan daiteke ondo funtzionatzeko arrazoi bat”.*

Berariazko programak ez izan arren, arlo komunitarioko prebentzio unibertsalaren kasuan, zenbait alderdi garrantzitsu aipatzen dira bideratutako emaitzak egokiak azaltzeko.

Azaldutako estrategia nagusien artean, prebentzioaren aldeko gizarte-, hezkuntza- eta osasun-arloko erakunde eta baliabideen arteko koordinazioa, lankidetzak eta sare-lanaren presentzia izan da. Bigarrenik, motibazioa, parte-hartze aktiboa eta ahalduzkoak sustatzen dituen metodologia bat erabiltzea aipatzen da; hausnarketarako eta sentsibilizaziorako guneak sortzeko baliabide gertatu dena. Hirugarrenik, hiru arloen artean era transbertsal batean lan egitea estrategia eraginkortzat aurkezten da: familia, eskola eta komunitatea.

*“...3 arlotan (familia, eskola eta komunitatea) era transbertsal batean lan egiten saiatzen den metodologia baten erabilerak prebentziorako mezuak sendotu eta finkatu egiten ditu”. “...familien kolektiboa gainditu egiten baitu, eta ekarpen operatiboan bitartez komunitatearekin parte-hartzen baitu”.*

Azkenik, konpromiso politikoa eta eskuragarri dagoen aurrekontua interbentzioak hobetzeko kontuan hartu beharreko gaitzat nabarmendu da.

## 2.1. Emaidzak

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak

#### Emaidza desegokienak eta arrazoiak

Orokorrean, TTBTetako arduraren teknikoak pozik agertzen dira sustatutako programekin, jarduerekin eta interbentzioekin; nahiz eta duten helmena eta eragina neurtzea zaila gertatu. Orokorrean baikorra den ebaluazioaz harago, TTBTetako arduradun teknikoek espero ez izandako zenbait alderdi nabarmentzen dituzte. Ildo horretan, nahiz eta orokorrean eskola-eremuko adikzioen prebentzio unibertsaleko programek, jarduerak eta interbentzio orokorrek emaitza onak lortu, esan dugun bezala, haien lana egiteko zailtasun gehien duten esparrua hauxe izan omen da.

Lehenik eta behin, ikastetxeen aldetik kontzientziario falta nabari omen da jarraitutasuna izango duten prebentzio-programak eskola-zentroetan egiteko, eta haien orde egiten diren premia jakinetarako interbentzioetan. TTBTetako arduradun teknikoen iritziz, garrantzi handia ematen diote bai irakasleen bai ikastetxeei inplikazio eta konpromiso handiagoari, baita eskolako curriculumean adikzioen gaia era transbertsal batean sartzeko premiari ere.

*"Eskola-eremuarekin egindako lana da asegabetasun gehien sortzen duena, izan ere, zentroetan inplikazio eta kontzientziario falta handia baitago prebentzio programa jarraituak txertatzeko, eta horren orde arazo edo premia jakin baten aurrean adabaki moduko programak bideratzen dira". "Orokorrean, irakasleak ez dira inplikatzeko, ez dituzte gaiak lantzen, eta adikzioei buruzko gaiek izaera transbertsala izan beharko lukete eskolako curriculum osoan".*

Eskola-eremuaz gain, arlo komunitarioko eta familiarreko prebentzio unibertsala ere arazorik gehien agertzen dituen gaitetako bat da, biztanleria orokorra erakartzeko zailtasunengatik eta jomuga dituen pertsonetara iristeko zailtasunengatik.

Gainera, gazteen txokoetan adingabekoekin esku-hartzeko zailtasunak aipatzen dituzte.

*"...emaitzarik desegokienak arlo komunitarioan gertatzen dira, biztanleekin tratuan jartzeko zaila gertatzen delako. Biztanleria orokorra erakartzeko zailtasunak ditugu". "hartzaileengana iristea kosta egiten zaigu".*

Kalteberatasun handiko nerabe, gazte eta haien familiekin egin beharreko prebentzioari dagokionez, interbentzio espezializatuak eta beste zerbitzu batzuei jarraipena egitea eskatzen duten kasuak detektatzeko eta bideratzeko zailtasuna da errepikatzen den alderdietako bat.

Berariazko programak ez izan arren, egindako interbentzioen gogobetetzea gertatzeko zenbait alderdi nabarmentzen dira. Haietako bat eskuragarri dauden materialei eta baliabideei buruzkoa da. Zenbait kasutan materialen berriztatzearen gabeziari buruzko pertzepzioa nabarmendu da azken urteotan. Bestetik, erantzun indibidualizatuaren premia duten kasuetarako baliabideen gabezia aipatzen dute.

*"Betiko errekurtsuak erabiltzea, horietako batzuk oso desfasetuak. Ez dira berritzen, teknikoek jarri behar izaten dituzte". "Programa berririk ez dagoenez, eta dauden programak ia-ia berberak izanda, nire ustez, egoera gogaikarriak gertatzen dira".*

Azkenik, burutu izandako ekimenak ebaluatzeko zailtasuna aipatzen da, baita instituzioen aldetik sostengu handiagoa jasotzeko premia ere.

*"askotan Eusko Jaurlaritzaren laguntza faltan botatzen da". "gurea bezalako testuinguru txikietan, nolabaiteko sinismen/inplikazio/jarraipena behar da sustatzen duten erakundeetatik, eta hori falta izan da sarri askotan".*

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak

#### Etokizunean hobetu beharreko alderdiak

Orokorrean, eguneratu, handiagotu edo egokitu beharra dagoela uste diren programak, jarduerak eta interbentzioak familia eta arlo komunitarioko prebentzio unibertsalari lotutakoak izaten dira, baita jai- eta aisialdi-arloan biztanle gazteekin eta nerabeekin egindako prebentziorako interbentzioak ere.

Etokizunerako aldeztu eta sustatu beharreko alderdi nagusietako bat Euskadiko profesional eta teknikari desberdinen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta sare-lana da. Toki-mailan, bai sailen artean bai diziplina anitzeko zerbitzuen artean, udalerriko baliabide eta gizarte-eragileen artean, baita Autonomia mailan ere, eta Euskadiko zenbait toki-erakunderen adikzioen prebentzio komunitarioko teknikarien artean lankidetzeta bultzatzea premiazkoa da.

Azken atal honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak sustatutako adikzioen prebentzio komunitarioko teknikarien arteko bilerak berriz antolatzen hasteko ideia azaldu izan da, izan ere, TTBT desberdinen esperientziak partekatzeke gune gertatzen baitziren.

*“Behar bada, Euskadiko profesionalen eta teknikarien bileren hutsunea igartzten da, lehen egiten genuena”. “Talde teknikoen koordinaziorako guneak berreskuratzea, haietan ekimenak eta jarduera egokiak partekatzeke”. “Osasun Publikoko zuzendaritzatik EAEko prebentzio komunitarioko taldeen sare-lanaren gidaritzeta eta sustapena berreskuratzea”.*

Eskaririk handiena duen beste alderdietako batek erakundeen aitortza eta sostengu handiagoa nabarmentzen du, eta apustu politiko sendoagoa egitea, egindako laguntzez eta inbertsio ekonomikoez gain. Ildo horretatik, adikzioen arloan instituzioen arteko lanerako sare operatiboa sortzearen premia nabarmentzen da.

*“Ez dakit. Orokorrean bakarrik sentitzen gara, laguntza barik”. “Lehenik, apustu politiko trinkoa eta zintzoa falta da, hasi EJtik bertatik eta Tokiko Administrazioetara heldu arte”. “Instituzioen arteko markoan kolektibo profesional gisara balioa jasotzeko eta ikusgarritasuna lortzeko premia dugu”. “Zerbitzuaren ikusgarritasun handiagoa behar du zerbitzuak, baina ez biztanleen artean, baizik eta beste erakundeen artean”.*

TTBTen helburuei dagokienez, kasu batzuetan Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planen berrikuntza aipatzen da, gaur egun lanketa- edo ebaluazio-fasean dagoena, modu honetan premia berrietara egokitu ahal izateko.

Jarduera-ildo berriei dagokienez, eskaririk handiena dutenen artetik substantzia gabeko adikzioen arloa nabarmentzen da. TTBTek eskainitako arlo honetako eskaria nahikoa ez dela ulertzen da, arloko teknikariek duten prestakuntza eskasaren ondorioz. Bestetik, hein apalago batean izan arren, lan- eta ingurumen-arloko prebentzioa ere aipatzen da.

*“substantzia gabeko adikzioei buruzko prestakuntza eta interbentzio-ildo bat ezagutzea derrigorrezkoa da”. “Iudopatien eta substantzia gabeko bestelako adikzioen intzidentzia handiagoa da. Zerbitzuetako langile teknikoek gai horiei buruz bideratutako prestakuntza derrigorrezkoa dela ulertzen dugu”.*

Eskuragarri dauden baliabide eta tresnei dagokienez, TTBTetako profesionalen aburuz, haien eragina eta ikusgarritasuna, batzuetan behintzat, eskura dituzten baliabideen eta tresnen eskasiak mugatu egiten dute. Alde batetik, material berrien gabezia nabarmentzen da azken urteotan. Bestetik, programak teknologia berrietara egokitzeko premia nabarmentzen dute zenbait kasutan; ikastetxeetan aurkitzen duten eskari zabalaren ondorioz. Azkenik, adikzioen diagnostikorako tresnak eta ebaluaziorako adierazleak hobetu beharra nabarmentzen da, nahiz eta inbertsio handiagoa bideratzea beharrezko gertatu.

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.2. Programak, jarduerak eta interbentzioak

#### Toki-erakundeak burutu izandako jardueren balorazioa


TTBTetako arduradun teknikoek erabat baikorra den balorazioa egiten dute lan egiten duten toki-erakundearen burutu izandako adikzioen prebentzio komunitarioaren arloko ekimen edo jardueren inguruan.

Euskadiko TTBTetako arduradun teknikoetatik %84,8k balorazio nahiko edo oso baikorra egiten dute; eta %13,0k ez baikorra ez ezkorra. Teknikariaren erantzuten artean ez da jaso erabateko balorazio ezkorrik.


Gogobetetze-mailarik altuena duen lurralde historikoa Araba da. Izan ere, jaso izandako erantzun guztiek balorazio positiboa egin baitute: hiru teknikarietatik biren esanean, lan egiten duten toki-erakundeak bultzatutako jarduerak oso baikorrak direla azaldu dute (%66,7), eta hiru arduradunetatik baten esanean, nahiko positiboak izan omen dira (%33,3). Bizkaiko kasuan, ekimen horiek baikortzat jotzen ditu %86,3k, eta Gipuzkoan %77,8k.

Gogobetetze-maila ere handiagoa da TTBTaren toki-erakundearen tamaina handiagoa den heinean: 8.000 biztanle baino gutxiago duten TTBTetako tekniko arduradunen %57,2k uste du toki-erakundeak bideratutako jarduerak oso baikorrak direla. Aldiz, 8.001 eta 20.000 biztanle duten toki-erakundeetako TTBTetako arduradunen %83,3k, 20.001 eta 45.000 biztanle artean duten %91,6k eta 45.000 biztanle baino gehiago dutenen %100ak berdina uste du.

7. Grafikoa. TTBTak lan egiten duen toki-erakundeak adikzioen arloan egindako prebentzio komunitarioko ekimenen balorazioa (%)



8. Grafikoa. Tokiko Talde Teknikoak lan egiten duen toki-erakundeak adikzioen arloan egindako prebentzio komunitarioko ekimenen balorazioa (%)





## 2.1. Emaitzak


### 2.1.3. Lankidetzaren eta koordinazioaren beste instituzioak eta erakunde batzuekin

2018 urtean eta gaur egunera artean, TTBtetatik %90 baino gehiagok lankidetzaren eta koordinazio-lanak burutu dituzte ikastetxeen batekin (%93,5) edo bestelako udal-arloren batekin (%93,5). Lau TTBtetatik hiruk Lehen Arretako osasun-zentroekin lan egin du (%76,1), gurasoen elkarrekin batekin (%76,1) eta gizarte-hezkuntzako eta/edo aisialdi erakunderen batekin (%76,1). Hamar TTBtetatik seik Osakidetzaren ESlekin elkarrekin edo koordinatuta lan egin dute (%60,9), eta erdiak baino gutxiagok kolektibo kalteberekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeekin (%47,8) eta arreta espezializatutako zentroekin (%45,7). TTBtekin lankidetzaren edo koordinazio gutxiaren izandako erakunde edo zerbitzuaren artean enpresak (%21,7), unibertsitateak (%13,0) eta sindikatuak ageri dira (%4,3).

Oro har, koordinazio eta lankidetzaren handiagoa izaten da taldeen toki-erakunde biziaren tamaina handitzen den heinean. Lurralde historikoen arabera, erakunde edo zerbitzu bakoitzarekin lankidetzaren aritu izandako edo koordinatutako Bizkaiko TTBten proportzioak zertxobait handiagoak dela dirudi; batez ere, Araba Gipuzkoarekin konparatzean, nahiz eta, lehenago esan bezala, laginaren tamainak eragina izan dezakeen.

Erakunde edo zerbitzu horiez gain, TTBtak maila desberdinean elkarrekin edo koordinatuta aritu dira beste erakunde edo zerbitzu batzuekin (informazioa, aholkularitza, prestakuntza, sostengu ekonomikoa, etab.). Zehazki, segurtasun-arloa, Ertzaintza eta Udaltzaingoa, DYA elkartearen osasun-arloa eta ospitale psikiatrikoak, aisialdiaren arloa, kirol-elkarteak, ostalaritzako eta merkataritzako profesionalak nabarmentzen dira; baita adikzioen arloko beste erakunde batzuk ere, foru, estatu eta europar mailakoak.

9. Grafikoa. 2018 urtean eta gaur egunera arte Tokiko Talde Teknikoarekin lankidetzaren edo koordinatutako entitateak edo zerbitzuak (%)



5. Taula. 2018 urtean eta gaur egunera arte TTBtekin lankidetzaren edo koordinatutako entitate edo zerbitzuak, biztanleria-tamainaren eta lurralde historikoen arabera (%)

				Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	< 20.000	20.001 - 45.000	> 45.000			
Ikastetxeak	88,0	100,0	100,0	100,0	95,5	88,9
Udaleko beste sail edo arloak	88,0	100,0	100,0	83,3	100,0	88,9
Gizarte-hezkuntzako eta/edo aisialdi erakundeak	68,0	75,0	100,0	100,0	81,8	61,1
Guraso-elkarteak	72,0	75,0	88,9	100,0	86,4	55,6
Lehen Arretako Osasun Zentroak	72,0	83,3	77,8	83,3	81,8	66,7
Osakidetzako Erakunde Sanitarioak	32,0	91,7	100,0	50,0	72,7	50,0
Kolektibo kalteberekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeak	32,0	66,7	66,7	83,3	50,0	33,3
Arreta Espezializatutako Zentroak	32,0	50,0	77,8	50,0	50,0	38,9
Enpresak	12,0	25,0	44,4	66,7	22,7	5,6
Unibertsitateak	12,0	16,7	11,1	50,0	13,6	-
Sindikatuak	-	16,7	-	-	9,1	-

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.4. Balorazioa

#### Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak sustatutako jardueren balorazioa


TTBTetako arduradun teknikarietatik %54,3k nahiko edo oso modu baikorrean baloratzen ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak adikzioen arloan bultzatutako prebentzio komunitarioko jarduerak.

Lurralde Historikoen arabera, Bizkaiko (%54,5) eta Gipuzkoako (%50,0) lurraldeen aldean, Araba da (%66,7) balorazio-proportziorik altuena jasotakoa.


Egia da TTBT sistemaz arduratzen diren teknikarien erdiek baino gehiagok balorazio positiboa egiten dutela, eta, horrez gain, hamar TTBTetatik lauk (%39,1) ez dutela balio ez positiborik ez negatiborik nabarmentzen; eta tankerakoak dira lurralde historiko bakoitzean bildutako ehunekoak.

Bestalde, TTBT horien ardura duten pertsonen proportzioa pixka bat handiagoa da toki-erakunde bateko (20.001 eta 45.000 biztanle artean) arteko taldeen artean (%66,7). Era berean, 45.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakundeetako TTBTetako arduradun teknikoen artean iritzien aniztasun handiagoa nabarmen daiteke.

10. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak adikzioen arloko prebentzio komunitarioan egindako jardueren balorazioa, lurralde historikoen arabera (%)



11. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak adikzioen arloko prebentzio komunitarioan egindako jardueren balorazioa, toki-erakundearen biztanleria-tamainaren arabera (%)



## 2.1. Emaitzak


### 2.1.4. Balorazioa

#### Baliabide eta tresna batzuen erabilgarritasunaren balorazioa

Erabilgarritasun-ehunekorik altuena jasotako bi tresnak Adikzioen VII. Plana –hamar TTBTatik bederatzik nahiko edo oso erabilgarritzat baloratua (%89,1)– eta Adikzioen 2016 urteko Legea dira. Adikzioei buruzko Inkesta eta Drogak eta Eskola Inkesta nahiko edo oso erabilgarritzat jotzen ditu %78,2k eta %76k, hurrenez hurren. Hala ere, Osasunari buruzko Inkestaren erabilgarritasuna ez da horrenbeste baloratzen (%45,7). Drogomediako webgunearen kasuan ere, portzentajea altua da: TTBTetako arduradun teknikoek era global batean nahiko edo oso erabilgarritzat jotzen dute web orria, %60,8k datu-bankua, %52,2k direktorioa; eta portzentaje altuena dokumentazioaren arloari dagokio (%67,4). Azkenik, TTBTetatik %37,0k Gabia baliabide-mapa nahiko edo oso erabilgarri dela adierazten du.

Alde batetik, baliabideen eta tresnen balorazio ez baikorra ez ezkorra egiten dutenen proportzioa nabarmendu behar da; bereziki Osasun Inkestaren (%43,5) eta adikzioen baliabideen kasuei dagokienean (%41,3). Bestetik, erakundearen biztanleria-tamainaren balorazioan Drogomediako web orriaren balorazioaren aldea nabarmentzen da (20.001 eta 45.000 biztanle arteko erakundeetako TTBTetatik %91,7k tresna hori nahikoa edo oso erabilgarria dela adierazten du, baina 20.000 biztanle azpikoetatik %48,0k) Edonola ere, alde horiek laginaren tamainari eragin diezaiokete.

12. Grafikoa. Euskadiko adikzioen arloko baliabideen eta tresnen erabilgarritasunaren balorazioa (%)



6. Taula. Euskadiko adikzioen arloko baliabideen eta tresnen erabilgarritasunaren balorazioa, toki-erakundearen biztanleria-tamainaren eta lurralde historikoaren arabera (nahiko edo oso erabilgarri dela balioesten dutenen %)

	20.000 baino gutxiago	20.001 eta 45.000 artean	45.000 baino gehiago	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Adikzioen VII. Plana (2017-2021)	88,0	91,7	88,9	100,0	95,5	77,8
2016 urteko Adikzioen Legea	84,0	75,0	88,9	83,3	86,4	77,8
Adikzioei buruzko Inkesta	76,0	75,0	88,9	100,0	86,4	61,1
Drogak eta Eskola Inkesta	68,0	75,0	100,0	100,0	86,4	55,6
Drogomedia Dokumentazioa	68,0	58,3	77,8	83,3	72,7	55,6
Drogomedia webgunea	48,0	91,7	66,7	66,7	72,7	50,0
Drogomedia Datu Bankua	64,0	50,0	66,7	50,0	63,6	61,1
Drogomedia Direktorioa	52,0	33,3	77,8	33,3	59,1	50,0
Osasun Inkesta	44,0	41,7	55,6	83,3	40,9	38,9
Adikzioen baliabide-mapa (Gabia)	36,0	33,3	44,4	33,3	36,4	38,9

## 2.1. Emaitzak

### 2.1.4. Balorazioa


#### TTBTen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren egungo erlazioari buruzko balorazioa

TTBTetako arduradun teknikoetatik erdiak baino gutxiagok (%47,8) taldearen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren arteko harremanaren balorazio positiboa egiten du. Hori horrela izateak, hala ere, ez du esan nahi TTBTetako arduradun teknikoek erlazio horren balorazioa ezkorra denik. Berez, erlazioa nahiko desegokia dela ulertzen dutenen proportzioa %8,7koa da, eta oso desegokia %4,3rentzat. Hain zuzen ere, %32,6k ez du harremana desegoki edo egoki denik baloratzen.


Lurralde Historikoen arabera, ez dira alde nabarmenak ikusten balorazio positiboaren proportzioari dagokionean. Hala ere, Araban balorazio desegokiaren arinki altuagoa den proportzioa ageri da, baina lurralde horretako TTBTen kopuru baxuagoagatik gertatzen da hori.

TTBTetako arduradun teknikoen artean, erlazio hori egokitzat baloratu dutenen proportzioa toki-erakundearen biztanleria-tamaina hazten doan heinean hazi egiten da. Izan ere, 8.000 biztanle azpiko toki-erakundeetako TTBTetako teknikariek %28,6ren iritziz, Eusko Jaurlaritzako teknikariek gaur egun duten erlazio nahikoa edo oso egokia omen da. Ehuneko hori %44,4 izatera iristen da 8.001-20.000 biztanle arteko herrietako toki-erakundearen kasuan, %50ekoa 20.001-45.000 biztanle bitartekoetan eta %66,7ra iristen da 45.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuetan.

**13. Grafikoa. TTBTetako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikarien egungo erlazioari buruzko balorazioa, lurralde historikoaren arabera (%)**



**14. Grafikoa. TTBTetako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikarien egungo erlazioari buruzko balorazioa, toki-erakundearen biztanleria-tamainaren arabera (%)**



## 2.1. Emaitzak

---

### 2.1.4. Balorazioa

TTBTen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren arteko erlazioan hobetu beharreko alderdiak.

Lehenik eta behin, aurretik azaldu den bezala, orokorrean, TTBTek ez dute uste Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikoekin duten harremana ezkorra denik. Izan ere, horietako askok nabarmentzen dute Zuzendaritzatik jaso duen aholkularitza eta laguntza teknikorako asmo ona, eta laguntza, orientazioa edo informazioa behar izan duten guztietan aurkitu duten lankidetzarako jarrera.

Hala ere, arduradun teknikoek zehaztu dute harreman horiek puntualak direla, urteko une jakin batzuetan baino ez direla gertatzen, eta soilik administrazio-kontsulta eta izapide burokratikoetarako egiten direla, adibidez, TTBTak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzetako deialdiak, proiektuak gauzatzeko diru-laguntzen deialdiak, edota diru-laguntzen eskaerretarako informatika-aplikazioarekin lotutako zailtasunei buruzko gaiak.

*“Zuzendaritzako profesionalekin izandako komunikazioa beti izaten da egokia. Harremanetan jartzean, informazio zehatza eskaintzen da. Betiere lankidetzajarrera bat aurkitu izan dugu. Baina, urtean zehar izandako harremanak kasu puntualen ingurukoak izaten dira, adibidez, ekipamendu teknikoaren mantentzerako laguntza-deialdiak...” “Erlazio zuzenak izaten dira, baina oso gutxitan gertatzen dira, une zehatzetan”.*

TTBTek harremanetan jartzeko aukerak urriak direla uste dute, eta horren ondorioz, komunikazioa berrosatzea eta topaketak maizago egin behar direla uste dute. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak urtean behin burututako topaketak sustatu eta berriz egitea proposatzen dute —edo sei hilabetean behin antolatzea— Euskal Autonomia Erkidegoko TTBT guztien artean —edo lurralde-mailakoen artean—.

Lankidetzak motari dagokionean, bi motatako gerturatzeak proposatzen dira. Kasu batzuetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren aitzindaritza nabarmenagoa izatea proposatzen da, TTBTetako teknikarien talde-lana sustatu eta koordinatzeko.

Beste kasu batzuetan, aitzitik, adikzioen prebentzio komunitariora dedikatzen diren erakunde publiko guztien arteko erlazio horizontalagoa, dinamikoagoa eta aktiboagoa behar dela uste da, teknikarien artean erabakiak modu adostuan eta guztiak partaide izanda adosteko, edo behintzat, eragiten dieten erabakiak kontsultatu eta haien berri emateko aukera izatea. Hori gertatzeko, lan- eta kontraste-taldeak sortzea proposatzen da TTBTen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren artean.

Komunikatzeko aukerei dagokienean, bilera presentzialek jasotzen dute sostengurik handiena, baina kasu batzuetan komunikazio birtualerako eta interaktiborako guneak sortzeko aukerak aipatzen dira.

Halaber, hein apalago batean izan arren, alde batetik azken urtean era jarraitu batean egiteari utzi izandako prestakuntzari garrantzia eskaintzea azpimarratzen da. Bestalde, ezagutza trukatzeko arloan lankidetzaren aukera sustatzea aipatzen da: foroetan, lan-mahaietan, tokiko ikerketetan, argitalpen bateratuetan edo esperientzia pilotuetan. Azkenik, ebaluazioa ere hobetu beharreko alderdi gisara ulertzen da.

## 2.1. Emaidzak

---

### 2.1.5. Beharrak

#### Prestakuntzarako eta gaikuntzarako beharrak

TTBTek egiten duten prestakuntza-eskaria zabala da. Gehienen ustez, taldeei eskainitako prestakuntza- eta informazio-arloko nolabaiteko eskasia nabarmentzen da, kasu askotan era pertsonalean edo beste erakundeen bitartez orekatu beharrekoa izaten dena. TTBTetako arduradun teknikoek premiazko jotzen dute etengabeko prestakuntza edo langileentzako birziklatze-ikastaroak egitea, eta horregatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak gidatutako programa baten lanketa proposatzen dute, adikzioen arloko berariazko ekimen tematiko desberdinak bilduko dituen.

Proposatutako gaiei dagokienez, lehenik eta behin, substantziarik gabeko mendekotasunen esparruan zentratzen da gehiena, eta bereziki, jokoaren eta teknologia berrien adikzioarekiko interesa; eta, zehazki, gazteen eta nerabeen kolektiboaren aldeko prebentzioa.

Bigarrenik, adikzioen eremuari heltzeko proposamen metodologiko berrien inguruko eguneratzea eta berrikuntza garrantzitsutzat jotzen da. Zehazki, orientabide eta aurreikuspen berriak, esperientzia eta ekimen prebentibo berriak, tokiko, estatuko eta Europa-mailakoak, eta Euskadira ekar daitezkeenak; adikzioen arloko jarduera egokien eta tresnen adibide eta interbentzio-tresna izango direnak; baita genero-ikuspegitik eta ikuspegi sistemikoetatik eta psikodinamikoetatik adikzioei aurre egitekoak ere.

TTBTetako arduradun teknikoek aipatu izandako beste alor bat Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei (IKT) buruzko prestakuntza da, eta zehazki, sare sozialei buruzko prestakuntza, Internet bitarteko Prebentziorako Zerbitzu Tekniko desberdinen presentzia sustatu ahal izateko.

Prestakuntzaren hobekuntzarako beste arlo bat ikerkuntza dela nabari da. Arlo horren baitan, datu- eta emaitza-bilaketari buruzko prestakuntza aipatzen da (datu-baseak, kontsumoen eguneratzea, joerak, etab.), eta gizarte-errealitatearen analisia (arlo komunitarioko eta aisialdiari buruzko azterketak egitea). Azkenik, lantzeko berariazko gai gisara ondokoak nabarmentzen dira, nahiz eta lehen aipatutakoen aldean hein apalagoan gertatu: osasunaren haziketarako sustapen-arloa, familia-bitartekaritza edo lizitazio publikoa.

Formatuari dagokionez, prestakuntza-topaketa parte-hartzaileak proposatzen dira teknikarien esperientziak partekatu ahal izateko. TTBTetako arduradunek jakin badakite prestakuntza-programa bat abian jartzeak haien aldetik partaidetzari dagokion konpromisoa premiako duela, baina ez dena betiere konplitzen. Horren ondorioz, derrigorrezko izaerako jarduerak izateko aukera aipatzen da kasuren batean, eta besteren batean antolakuntzaren garrantzia nabarmentzen da, dela parte-hartze zabalagoa lortzeko ordutegiaren hautaketari dagokionean, dela kokapenari dagokionean; prestakuntza inguru bakoitzeko beharrei eta errealitateei egokitu ahal izateko.

*"Zentzu horretan, edozein prestakuntza mota positiboa izango litzateke, eta positiboa da, nahiz eta askotan lan-karga eta konpromisoen ondorioz parte-hartzeko zailtasunak izaten diren ...". "Beharrezkoa da talde teknikoetako prestakuntza espezifikoei berriro ekitea, batzuk eta besteak egiten ditugun esperientziak partekatzea, prestakuntza parte-hartzailea, ondo eta gaizki egiten duguna entzutea, benetan egoki egiten duguna kopiatzea, pozgarriak diren ekimenak ekartzea..."*

## 2.1. Emaitzak

---

### 2.1.5. Beharrak

#### Koordinaziorako beharra

Koordinazio-arloko eta sare-laneko arloko hobekuntza lortzeko interesa nabarmena da TTBTen artean, eta lau mailen arteko koordinaziorako premia nabarmentzen da.

*“Koordinazioa maila guztietan hobetu daitekeela pentsatzen dut: udal-sailen arteko koordinazioa hobetzea, herri-mailan prebentziorako mahai bat sortzea, eragile ezberdinak parte hartuko dutena; koordinazioa eskualdeko prebentzio teknikariek; koordinazioa adikzioen prebentzio komunitarioko beste teknikoekin eta zuzendaritzarekin”.*

Lehenik eta behin, toki-mailako koordinazioa egongo litzateke, toki-erakundearen beste arlo batzuekin, hala nola, gizarte-zerbitzuak, gazteria, hezkuntza, kultura, etab., udalerriko beste erakunde eta baliabide batzuekin, edota ikastetxe, osasun-zentro, hirugarren sektoreko erakunde eta abarrekin. Toki-mailako koordinazioa TTBTek gehien garatu izandakoa da, baina arlo horretan ere hobekuntzarako premia nabarmentzen da.

*“Toki-mailan, beste arlo batzuen arteko koordinazioa gertatzen da (Osasun Publikoa, Osakidetza, Hezkuntza...), baina ez da halakorik gertatzen eskualde-, lurralde- edo erkidego-mailan. Interesgarritzat jotzen dut eta prestakuntzarekin eta trebakuntzarekin aldi berean egin daiteke”.*

Bigarren lekuan lurralde-mailako koordinazioa egongo litzateke. Maila honetako koordinazio-beharrei buruzko erantzunak desberdinak izan dira. Lurralde historiko bateko TTBtetako arduradun teknikoek esanean, arlo hori ondo dagoela uste dute, eta emaitza egokiak izan dituela. Hala ere, beste lurralde historikoetan, oro har, TTBtetako teknikariek koordinaziorik eza edo hobetu daitekeela irizten diote.

Hirugarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko TTBtetako teknikarien arteko koordinazioaren gaia ageri da. Aurretik esan bezala, orain dela urte batzuk egiten ziren bilerak eta topaketak berrartu behar direla uste du arduradun askok eta askok.

Hala ere, zenbait kasutan nabarmentzen den bezala, lurralde bakoitzean eta probintzia bakoitzeko teknikarien artean bilerak egitea aldeztu da; lurralde horietako bakoitzak duen egoera zehatzaren ondorioz topaketa horiek bakoitzak dituen beharretara egokitzeko premiagatik.

*“Gaur egun koordinazioa desagertuta dago, egin izan denean teknikari guztiak aldi berean elkartuta izan da (...) Egokiagoa ikusten dut eskualdeko bilerak egitea (...) eskualdetik eskualdera alde handia dagoelako baliabideetan, egituretan... horrela premiak eta aukerak aztertzeke, mobilizatzeko...”...lurralde-eremu bakoitzeko errealitatea eta beharrak ere ez dira berberak izaten. Beraz, prestakuntza jarraitua, baina eremu bakoitzera egokitua”.*

Azkenik, TTBtetako teknikarien eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren koordinazioaren premia aipatzen da gehien; eta interesik handiena sorrarazi. TTBtetako arduradunen ustez, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzarekin egun duten erlazioa eskasa omen da; eta arlo honetan hobetzeko ezinbestekoa da.

## 2.1. Emaitzak

---

### 2.1.5. Beharrak

#### Informazioaren beharra

TTBTek gaur egun dituzten informazio-premiei dagokienean, jasotako erantzunen artean heterogeneotasuna nabarmen daiteke.

TTBTetako arduradun tekniko gehienek informazio-beharrak gaur egun beteta daudela uste dute, eta Euskadik informazio zabala, irisgarria eta erabilgarria duela; eta, beraz, ez dela berariazko premiazat jotzen esparru horretan. Kasu batzuetan zehazten denez, erabilgarritasunaren eta erraztasunaren gorabeherak azaldu arren, informazio hori ez iristea lan-kargaren eta denbora ezaren ondorio izaten omen da.

Hala ere, informazioaren arloko beste alderdi batzuk hobetu beharra garrantzitsutzat jotzen da beste kasu batzuetan, adibidez, arlo honetan landu beharreko zenbait gai. Eskari handiena duten gaien artetik, informazio juridikoa nabarmentzen da. Taldeek zehazten dutenez, ez da mota horretako informazioa lortzeagatik, baizik eta gaiaren interpretazio eta ulermenagatik; eta bereziki, tabakoaren erabilera arautzen duen Legea, herri-segurtasuna, udal-ordenantzak, cannabisa kontsumitzeko klubak, etab.

Errepikatu izandako gaien artean jardunaldiak eta biltzarrak izan dira, erkidego- nahiz estatu- edo nazioarte-mailakoak. Halaber, azterketa eta ikerlanen eskuragarritasuna aipatu izanda, baita gune mugatueta inkestetan oinarritutako datu estatistikoak ere, edota udalerrri zehatz bati dagozkionak.

#### Bestelako alderdi eta ohar batzuk

TTBTetako arduradun teknikoek ikerketan parte-hartzera gonbidatu izana eskertzen dute, batez ere horrelako ekimenetan haien ekarpenak kontuan hartzen direlako. Azterlana metodologia kualitatibo baten bidez osatzea proposatzen dute alderdi teknikorako hobekuntza gisa. Kasu batean, TTBTetako teknikari guztien artean ikasitakoaren emaitzak partekatze eta zabaltzeko eskaria luzatzen da.

Alderdi edo ohar zehatzenei dagokienez, TTBTetako teknikariek haien lanarekiko egunerokotasunean sentitzen duten ahulezia, segurtasun eza eta ezegonkortasuna adierazten dute, batez ere, tokiko erakunde txikienetako taldeen kasuan; horretaz gainera, haien lanak eskatzen duen inplikazio eta sentsibilizazio handia azpimarratzen dute.

Teknikariek Euskadiko lan-sare koordinatu batean parte-hartzeko gogoia berresten dute, edo, behintzat, probintzietako talde, eragile eta erakundeekin sareko lanean jardutea.

Bestetik, hein apalagoan adierazi izan dira beste alderdi batzuk. Zehazki, beste arlo batzuen aldean ematen den baliabiderik eza, eta proiektuak, programak eta baliabideak ingurune bakoitzeko behar zehatzetara egokitzearen garrantzia ere; eta udalerrri bakoitzeko Adikzioen Tokiko Plana lehentasun izatea.



## 2.1. Emaitzak

### 2.1.6. Adikzioen arloko ekimen- eta praktika-ebaluaziora bideratutako jardueretan parte-hartzeko asmoa


TTBTetako arduradun teknikoek adikzioen inguruko ekimenak eta praktikak ebaluatzeko jardueretan parte-hartzeko jarrera oso egokia izan dute. %80,4k aldeztu du, ezetz esandako %12aren aldean.

Lurralde historikoen arabera, Arabako TTBTetako arduradun tekniko guztiek parte-hartzeko asmoa izango lukete horrelako jardueretan, Bizkaian %86,4k eta Gipuzkoan %66,7k.


Gainera, partaide izateko asmorik ez dutenen portzentajea Bizkaian (%13,6) baino pixka bat altuagoa da Gipuzkoan (%22,2).

Toki-erakundearen biztanle-tamainari dagokionez, aipatzekoa da, alde batetik, 45.000 biztanletik gorako TTBTetako teknikarien artean parte-hartzeko interes nabarmena dagoela (% 100). Bestalde, parte-hartzearen alde agertu direnen proportzioa %70 baino handiagoa izan arren, horretarako asmorik ez dutenen teknikarien zenbatekoa 8.000 biztanle azpiko toki-erakundeetako TTBTetan altuagoa da (%28,6).

15. Grafikoa. Adikzioen arloko ekimen- eta praktika-ebaluaziora bideratutako jardueretan parte-hartzeko asmoa, lurralde historikoaren arabera (%)



16. Grafikoa. Adikzioen arloko ekimen- eta praktika-ebaluaziora bideratutako jardueretan parte-hartzeko asmoa, toki-erakundearen biztanleria-tamainaren arabera (%)



## **3.Ondorioak**

---

### 3. Ondorioak

---

Euskal Autonomia Erkidegoan **Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Tokiko Talde eta bestelako Baliabide Teknikoko (TTBT) 50 entitate** daude, erkidego honetako baliabide-sareko partaide direnak. Talde horiek prebentzio komunitarioko programak garatzen dituzte, eta arriskuak eta kalteak murrizteko proiektuak bultzatu; baita adikzioen arloko jokabide osasungarriak sustatu ere, Euskadiko **143 udalerritan**.

Azterlan honetako galdetegiaren **erantzute-tasa %94,0koa** izan da, eta **lagina 47 TTBTek** osatu dute. Laginaren **adierazgarritasunari** dagokionez, Euskadiko biztanleetatik %80,2k azterlanean partaide izandako TTBT bat du haren herrian.

TTBTetatik %39,1 **8.000 eta 20.000 arteko biztanle dituen** toki-erakunderen batena da (udala, kuadrilla edo mankomunitatea); %26,1 **20.001 eta 45.000 biztanle artekoa**; %19,6 hiru hiriburu-erakunde batena da edo 45.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakunde batena; eta, azkenik, %15,2 8.000 biztanle baino gutxiago dituen udalerrri batena.

Egiturari dagokionez, **tamaina txikiko** taldeak dira (1-3 pertsona artean, kasu gehienetan). **%65,2 goi- edo erdi-mailako titulazioa duen teknikaria da** eta erdiek baino gehiagok ez dute administrari laguntzailerik (%54,3).

TTBTetatik %91,3k drogamenekotasunei eta/edo adikzioei buruzko indarrean dagoen tokiko plana dute, eta, oro har, 3-5 urteko **indarraldia** hartzen du. Gai honi buruzko Tokiko Plan bat duten TTBT horien artean, gehien-gehienek **substantziarik gabeko mendekotasunak jasotzen dituzte** (%81,0).

2018 urtean zehar eta gaur egunera arte, TTBTetatik %80k baino gehiagok **prebentzio unibertsaleko** programak, jarduerak edo interbentzioak aurrera eramanez izan ditu **eskola-eremuan** (%93,5), **familia-arloan** (%82,6) eta **arlo komunitarioan** (%80,4). TTBTetan gutxien garatutako esparruak lan-eremuko prebentzio unibertsaleko interbentzioak izan dira (%8,7), baita ikerketa epidemiologikoan eta oinarritzko ikerketak (%21,7) eta adikzioetako ezagutza zabaltzea ere (%28,3).

Osasuna sustatzeko arloan, **bizitarako trebeziaren garapena** (%87,0), **sektore arteko sare-lana** (%76,1) eta **pertsonen eta komunitateen ahalgarritasuna** (%60,9) izan dira TTBTek gehien garatu izandako interbentzio motak. Horren aldean, ingurune sozialen, fisikoen eta ekonomikoen hobekuntzaren alde egin du %15,2k.

Orokorrean, TTBTetako arduradun teknikoak pozik agertzen dira egindako programekin, jarduerekin eta interbentzioekin; nahiz eta biztanleriarekin duten helmena eta eragina neurtzea zaila gertatu. Oro har, eskola-eremuko adikzioen prebentzio unibertsaleko programak, jarduerak eta interbentzio unibertsalak izan dira **emaitza egokienak** lortu izandakoak: bai **ikasleekin** egindako zuzeneko interbentzioak, bai gurasoen prestakuntzarako ekimenak. Funtzionamendu egokiaren arrazoiak urteetan zehar eskuratuz joan diren egonkortasunaren eta finkapenaren ondorio dira, baita parte hartzaileen eskari, parte-hartze, ebaluazio eta egokitzapen handiagatik ere.

Hala ere, TTBTek **eskola-eremuan zailtasun gehiago** aurkitzen dute haien betekizunerako, izaera transbertsala eta jarraitua duten programak garatzeko zailtasunagatik eta bai irakasleen bai ikastetxeen inplikazioa uste baino apalagoa delako.

### 3. Ondorioak

**Eguneratu, handiagotu edo egokitu** beharra dagoela uste diren programak, jarduerak eta interbentzioak **familia eta arlo komunitarioko prebentzio unibertsalari** lotutakoak izaten dira, gehienbat biztanleak erakartzeko zailtasunen ondorioz eta helmugatzat hartutako pertsonetara iristeko zailtasunengatik; baita **aisialdirako guneetan gazte eta nerabeekin egindako prebentziarako interbentzioetan** ere, bereziki gazteentzako lokaletan adingabeko biztanleekin egindako interbentzioetan.

TTBTetako arduradun teknikoek **erabat baikorra den balorazioa** egiten dute lan egiten duten **toki-erakundeetan burutu izandako** adikzioen prebentzio komunitarioaren arloko ekimen edo jardueren inguruan. %84,8k balorazio nahiko edo oso baikorra egiten du, eta %13,0k ez baikorra ez ezkorra. TTBTen toki-erakundea handiagoa den heinean, gogobetetze-maila hazi egiten da.

2018 urtean eta gaur egunera artean, TTBTetatik %90 baino gehiagok lankidetzaren eta koordinazio-lanak burutu ditu **ikastetxeren batekin** (%93,5) edo bestelako **udal-arloren batekin** (%93,5). Lau TTBTetatik hiruk Lehen Arretako osasun-zentroekin egin du (%76,1), gurasoen elkarteren batekin (%76,1) eta gizarte-hezkuntzako eta/edo aisialdiko erakunderen batekin (%76,1). TTBTek kolaborazio edo koordinazio gutxiena izandako erakunde edo zerbitzuak enpresak (%21,7), unibertsitateak (%13,0) eta sindikatuak izan dira (%4,3). Oro har, koordinazio eta lankidetzaren handiagoa ikusten da, ekipoen toki-erakundeko biztanleen tamaina handitzen den heinean.

TTBTetako arduradun teknikoetatik erdiak baino gehiagok (%54,3) Eusko Jaurlaritzaren Adikzioen Osasun Publikoko Zuzendaritzak sustatutako adikzioen gaineko prebentzio komunitarioko jarduerak **baikortzat edo oso baikortzat jotzen ditu**, eta, aldi berean, hamar teknikaritatik lauren balorazioa (%39,1) ez da ezkorra ez baikorra.

Euskadin eskuragarri dauden baliabideen eta tresnen **erabilgarritasunari buruzko balorazioari dagokionez**, erabilgarritasun-portzentaje altuenak **Adikzioen VII. Planak** –TTBTetatik %89,1k nahiko edo oso erabilgarritzat balioesten duena– eta **2016 urteko Adikzioen Legeak** jaso dituzte. Horietaz gain, TTBTek nahiko edo oso erabilgarritzat jotzen dituzte Adikzioei buruzko Inkesta (%78,2) eta Drogak eta Eskola Inkestak (%76,0). Gainera, Drogomediako webgunearen ehunekoa altua da (%63), bereziki dokumentazioari buruzko atalean (%67,4).

TTBTetako teknikarien eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikarien arteko egungo harremanari buruz galdetzean, erlazio horri buruzko **balorazio baikorra erdiak baino gutxiagok** egiten du (%47,8). Hala ere, horrek ez du esan nahi gehien-gehienek balorazio ezkorra egiten dutenik, izan ere, %32.6k ez baitu adierazten harremana **egokia edo desegokia** izan ote den. Izan ere, horietako askok nabarmentzen du Zuzendaritzak jaso duen **aholkularitza eta laguntza teknikorako jarrera egokia**, eta laguntza, orientazioa edo informazioa behar izan duten guztietan aurkitu duten **laguntzarako jarrera**. Hala ere, **noizean behingo** harremana izaten da, kontsulta **administratiboak** eta izapide **burokratikoak** xede izaten dituztenak, eta horren ondorioz **urri** direla ulertzen da. Arduradunek orain dela urte batzuk egin izandako **urteroko topaketak berrartu eta sustatzea** proposatzen dute.

**Prestakuntza jarraitua eta parte-hartzailearen eskaria** zabala da TTBTetako arduradun teknikoek aldetik, bereziki **substantzia gabeko adikzioen** arloan, izan ere, jokoari eta teknologia berriei buruzko adikzioei buruzko interesa nabarmena baita; eta, zehazki, gazteek eta nerabeek osatzen duten kolektiboari bideratutako prebentzioari buruzkoa. Halaber, adikzioen eremuari heltzeko **proposamen metodologiko berrien** inguruko eguneratzea eta berrikuntza garrantzitsutzat jotzen da.

### 3. Ondorioak

---

Etorkizunera begira, erraztu eta sustatu beharko liratekeen alderdien artean Euskadiko hainbat profesionalen eta teknikariren arteko koordinazioa, lankidetzeta eta sareko-lana dago, dela tokiko hainbat zerbitzu, baliabide eta gizarte-eragileren artean; dela Euskadiko tokiko adikzioen prebentzio komunitarioko hainbat erakunderen artean; nahiz Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin ere, lurralde- eta erkidego-mailan.

Informazio-premiei dagokienean, **jasotako erantzunen artean heterogeneotasuna** nabarmen daiteke. TTBT zentroko arduradun tekniko gehienek informazio-beharrak gaur egun **beteta** daudela uste dute, eta Euskadin **informazio zabala, irisgarria eta erabilgarria** dagoela. Eskuragarri duten informazioa hobetzeko nolabaiteko premia dagoela uste duten arduradunen artean, **informazio juridikoari buruzkoa** izan da eskatutako gai nagusietako bat.

Azkenik, adikzioen arloko **ebaluazio-jardueretan parte-hartzeko prest** daudela adierazten duten teknikarien portzentajea altua da (%80,4), bereziki 45.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako eta Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeetan.

## 4. Gehigarriak

---

## I. Gehigarria: Prebentzio Komunitariorako Euskadiko Tokiko Talde Teknikoen eta bestelako Baliabideen beharrei buruzko 2019 urteko azterketa

Lurralde Historikoa	Toki Erakundea	Udalerriak
Araba	Amurrio	Amurrio
	Añanako Kuadrilla	Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Añana, Gaubea eta Zanbrana.
	Kanpezu-Araba Mendialdeko Kuadrilla	Arraia-Maeztu, Kanpezu, Bernedo, Lagran, Harana eta Urizaharra.
	Guardia-Araba Errioxako Kuadrilla	Mañueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Lantziago, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Oion, Samaniego, Villabuena/Eskuernaga eta lekora.
	Laudio	Laudio
	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Gipuzkoa	Andoain	Andoain
	Aretxabaleta-Eskoriatza	Aretxabaleta eta Eskoriatza.
	Arrasate	Arrasate
	Azpeitia	Azpeitia
	Bergara	Bergara
	Donostia	Donostia
	Eibar	Eibar
	Elgoibar	Elgoibar
	Hernani	Hernani
	Hondarribia	Hondarribia
	Irun	Irun
	Bideberriko Mankomunitatea	Antzuola, Elgeta eta Leintz-Gatzaga
	Oñati	Oñati
	Ordizia	Ordizia
	Tolosa	Tolosa
Usurbil	Usurbil	

	Zarautz	Zarautz
	Zumaia	Zumaia
Bizkaia	Amorebieta-Etxano	Amorebieta-Etxano
	Arrigorriaga	Arrigorriaga
	Balmaseda	Balmaseda
	Barakaldo	Barakaldo
	Basauri	Basauri
	Bilbao	Bilbao
	Erandio	Erandio
	Ermua	Ermua
	Galdakao	Galdakao
	Gernika-Lumo	Gernika-Lumo
	Getxo	Getxo
	Leioa	Leioa
	Uribe-Kostako Mankomunitatea	Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz.
	Arratiako Mankomunitatea	Arantzazu, Zeanuri, Dima, Lemoa, Ubide, Bedia, Areatza eta Igorre.
	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa	Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurreta, Mañaria, Zaldibar eta Izurtza.
	Enkarterriko Mankomunitatea	Artzentales, Karrantza Harana, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.
	Lea-Artibai Amankomunazgoa	Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa eta Ondarroa.
	Mungialdeko Mankomunitatea	Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia.
	Txorierriko Mankomunitatea	Larrabetzu, Lezama, Derio, Loiu, Sondika eta Zamudio.
	Muskiz	Muskiz
	Ortuella	Ortuella
	Portugalete	Portugalete
	Santurtzi	Santurtzi
Ugao-Miraballes	Ugao-Miraballes	
Zierbena	Zierbena	



## II. Gehigarria: Galdetegia euskaraz

### EAE-KO ADIKZIOEN PREBENTZIO KOMUNITARIOKO TOKIKO TALDE TEKNIKOEN BEHARREI BURUZKO AZTERLANA 2018

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Tokiko Talde Teknikoen beharrei buruzko azterlan bat burutzen ari da. Honako galdetegi hau ikerketa horren barruan kokatua dago. Galdetegiaren helburua, talde tekniko hauen interbentzioari buruzko informazioa jasotzea da; zehazki, burutzen duten lana ezagutu, Euskadin adikzio eta drogamenpekotasunen inguruan egiten ari diren jardueri buruzko balorazioa zein den jakin, eta beren lan profesionalaren barruan dituzten beharrak jaso nahi dira.

Zuregana jotzen dugu, talde tekniko baten arduraduna izanda, zure iritzia jasotzeko asmoz. Horretarako, 22 galderez osatutako galdetegi bat prestatu dugu. Galdetegiari erantzuteko gutxi gorabeherako denbora 15 minutukoa da. Galdetegia konfidentziala dela eta zure erantzunak modu erabat anonimoan erabiliko direla jakinarazi nahi dizugu.

Galdetegiari erantzuteko epea hurrengo urtarrilaren 31n bukatzen da. SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa izango da informazio-billetaz arduratuko den erakundea. Edozein zalantza izatekotan Idoia Garciarekin jarri zaitezke kontaktuan, hurrengo helbide elektronikoaren bidez: [igarcia@siis.net](mailto:igarcia@siis.net).

Aldez aurretik zure lankidetzak eskertu nahi dizugu.

#### TALDEAREN OINARRIZKO DATUAK

1. Galdetegiari erantzuten hasteko, idatzi korreo elektroniko bidez bidalitako lau digituko kodea:

2. Jarraian agertzen diren aukeretatik, zehaztu, mesedez, zeinetan kokatzen den Talde Teknikoaren toki-erakundearen (udalaren, kuadrillaren edo mankomunitatearen) populazioa:

8.000 biztanle baino gutxiagoko populazioa	1
8.001 eta 20.000 biztanle arteko populazioa	2
20.001 eta 45.000 biztanle arteko populazioa	3
45.000 biztanletik gorako populazioa	4

3. Talde Tekniko honen erakundeak (udalak, kuadrillak edo mankomunitateak edo foru-aldundiak) ba al du indarrean dagoen drogamenpekotasunei edota adikzioei buruzko Tokiko Planik?

Bai	1
Ez (¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.. galderara pasatu)	2

4. Tokiko Planak substantziarik gabeko adikzioak jasotzen al ditu?

a. Bai	
b. Ez	

5. Zein da Tokiko Planaren indarraldia?

Hasiera-urtea:
Amaiera-urtea:

6. Tokiko Talde Teknikoari dagokionez, zenbat pertsonak osatzen dute taldea, jarraian aipatzen diren lan-talde profesionalen arabera sailkaturik? (pertsona kopurua adierazi, langile bakoitzak duen kontratu- edo jardunaldi-mota edozein delarik ere. Administrari-laguntzailerik ez badago, "0" idatzi).

a. Goi-mailako edo maila ertaineko titulazioa duten tekniko kopurua: .....
b. Administrari-laguntzaile kopurua: .....

#### PROGRAMAK, JARDUERAK ETA INTERBENTZIOAK

7. Zein eremutan gauzatu dira Tokiko Talde Teknikoak 2018.urtean zehar eta gaur egun arte burutu dituen programak, jarduerak edo interbentzioak? (Aukera bat baino gehiago erantzun daiteke).

a. Eskola-eremuko prebentzio unibertsala	
b. Familia-eremuko prebentzio unibertsala	
c. Lan-eremuko prebentzio unibertsala	
d. Komunitate-eremuko prebentzio unibertsala	
e. Eskola-eremuko prebentzio selektiboa	
f. Familia-eremuko prebentzio selektiboa	
g. Festa- eta aisialdi-eremuko prebentzio selektiboa	

h. Komunitate-eremuko prebentzio selektiboa	
i. Oso kalteberak diren nerabe eta gazteekin, eta beren familiekin egindako prebentzio egokitua	
j. Adikzioen alorreko ikerketa epidemiologikoa eta oinarritzko ikerketa	
k. Adikzioen inguruko ezagutzaren dibulgazioa	
l. Profesionalen formakuntza	

8. Osasunaren promozioari dagokionez, zer nolako interbentzio motak landu dira Tokiko Talde Teknikoak 2018.urtean zehar eta gaur egun arte burutu dituen programa edo jardueretan? (Aukera bat baino gehiago erantzun daiteke).

a. Bizitzarako trebetasunak	
b. Pertsonen eta komunitateen ahalduntzea	
c. Inguru sozial, fisiko eta ekonomikoen hobetzea	
d. Sarean egindako lan intersektoriala	

9. Zeintzuk dira, zure ustez, 2018.urtean zehar eta gaur egun arte Tokiko Talde Teknikoak burutu dituen programa, jarduera edo interbentzioetatik emaitza gogobetegarrienak izan dituztenak? eta zure ustez, zeintzuk izan dira ondo funtzionatzeko arrazoiak?

.....
.....
.....

10. Zeintzuk dira, zure ustez, 2018.urtean zehar eta gaur egun arte Tokiko Talde Teknikoak burutu dituen programa, jarduera edo interbentzioetatik, emaitza ez-gogobetegarrienak izan dituztenak? eta, zure ustez, zeintzuk izan dira horren ondo ez funtzionatzeko arrazoiak?

.....
.....
.....

11. Zeintzuk dira, zure ustez, Tokiko Talde Teknikoak burutu dituen programa, jarduera eta interbentzioetatik hobetu beharko liratekeen aspektuak etorkizunari begira? (adibidez, jarduera-ildo berriak, helburuak, lan-eremuak, egungo programen ahulguneak, programa-mota berrien proposamenak, programen ikuspegi edo proposamen aldaketa, etab.)

.....
.....
.....

12. Oro har, nola baloratuko zenituzke lan egiten duzun tokiko erakundeak adikzioen eremuan bideratzen dituen prebentzio komunitarioko ekimenak?

a. Oso positiboak	1
b. Nahiko positiboak	2
c. Ez positiboak ezta negatiboak	3
d. Negatiboak	4
e. Oso negatiboak	5

**BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEKIN KOLABORAZIOA ETA KOORDINAZIOA**

13. Jarraian agertzen den zerrendatik, Talde Teknikoak zein erakunde edo zerbitzuekin lan egin du edo koordinatu da 2018.urtean zehar eta gaur egun arte? (Aukera bat baino gehiago erantzun daiteke)

a. Udaleko beste eremu edo sailekin (hala nola, kultura, gazteria, gizarte zerbitzuak, etab.)	
b. Gizarte-hezkuntza edota aisialdi eremuetan lan egiten duten Hirugarren Sektoreko erakundeekin	
c. Kalteberak diren taldeen arreta-eremuan lan egiten duten Hirugarren Sektoreko erakundeekin	
d. Heziketa-zentroekin (eskolak, institutuak, etab.)	
e. Guraso-elkarteeekin	
f. Unibertsitateekin	
g. Lehen mailako arretako osasun zentroekin	
h. Atentzio Espezializatuko Zentroekin	
i. Osasun Publikoko Eskualde-zentroekin edo Osakidetzako Erakunde Integratu Sanitarioekin (EIS)	
j. Enpresekin	
k. Sindikatuekin	

14. Aurreko erakunde eta zerbitzuetatik kanpo, 2018.urtean zehar eta gaur egun arte Talde Teknikoak beste erakunde edo zerbitzuren batekin elkarrekin lan egin baldin badu edo koordinatu baldin bada, jarraian apuntatu.

.....
.....
.....

**BALORAZIOA**

15. Nola baloratuko zenituzke Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, adikzioen prebentzio komunitarioaren alorrean bultzatzen dituen jarduerak (tailerrak, jardunaldiak, etab.)?

a. Oso positiboak	1
b. Nahiko positiboak	2
c. Ez positiboak ezta negatiboak	3
d. Negatiboak	4
e. Oso negatiboak	5

16. Nola baloratuko zenuke gaur egun Euskadin ditugun baliabide eta tresnen baliagarritasuna 1etik 5era doan eskala batean? (1: batere ez baliagarria eta 5: oso baliagarria izanik).

	Batere ez baliagarria	Baliagarritasun gutxikoa	Ez oso baliagarria eta ezta batere ez baliagarria	Nahiko baliagarria	Oso baliagarria
a. Adikzioei buruzko Inkesta EAEn (Ihengo Euskadi eta Drogak)	1	2	3	4	5
b. Drogak eta Eskola Inkesta (Deustuko Unibertsitatea)	1	2	3	4	5
c. Osasun inkesta	1	2	3	4	5

d. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 2016ko Legea	1	2	3	4	5
e. Adikzioen VII. Plana (2017-2021)	1	2	3	4	5
f. Drogomediako datu-bankua	1	2	3	4	5
g. Drogomediako dokumentazioa	1	2	3	4	5
h. Drogomediako direktorioak	1	2	3	4	5
i. Adikzioen baliabideen mapa (GABIA)	1	2	3	4	5
j. Drogomediako web orrialdea (balorazio orokorra)	1	2	3	4	5

17. Nola baloratuko zenuke Tokiko Taldeko teknikoaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikoaren arteko harremana gaur egun?

a. Oso egokia	1
b. Nahiko egokia	2
c. Ez egokia ezta desegokia	3
d. Nahiko desegokia	4
e. Oso desegokia	5
f. Ez dago harremanik	6

18. Zeintzuk dira, zure ustez, hobetu ahalko liratekeen alderdiak? (adibidez, informazio-trukeari dagokionez, komunikazioa, jasotako laguntza, erabakitze-hartzea, formakuntza, laguntzak, ebaluazioa, etab.)

.....
.....
.....

19. Zeintzuk dira, zure ustez, Tokiko Talde Teknikoak gaur egun dituen beharrak **formakuntza eta trebakuntzari** dagokionez? (adibidez, formakuntza jarraitua, gai espezifikoaren eskaintza, langileentzako birziklatze-ikastaroak, etab.)

.....
.....
.....

20. Zeintzuk dira, zure ustez, Tokiko Talde Teknikoak gaur egun dituen beharrak **koordinazioari** dagokionez? (adibidez, lan jarraitua edo sareko lana adikzioen prebentzio komunitarioko beste teknikoekin, beste erakunde eta sektoreen inplikazioa, koordinazioa beste eremu edo sailekin, edota Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin, etab.)

.....
.....
.....

21. Zeintzuk dira, zure ustez, Tokiko Talde Teknikoak gaur egun dituen beharrak **informazioari** dagokionez? (adibidez, dokumentazio bibliografikorako sarbidea, azterlan edota ikerketen eskuragarritasuna, datu estatistikoak, inkesten emaitzak, deialdi edota diru-laguntzei buruzko informazioa, kongresuak, bilerak, informazio juridikoa, etab.)

.....
.....
.....

22. Ba al dago gehitu nahiko zenukeen beste alderdi edo iruzkinen bat?

.....
.....
.....

**ESKERRIK ASKO ZURE LANKIDETZAGATIK**

Galdera gehigarria:

23. Amaitzeko, prest egongo al zinateke adikzioen inguruko ekimen eta praktiken ebaluaziora bideratutako jardueretan parte hartzera?

Bai	1
Ez	2